

Garizumako 3. Igandea (C)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Izango naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana.

Irteera liburutik 3,1-8a. 13-15

Egun haietan, Moisesek Madiango apaiz Jetro bere aitaginarrebaren artaldea zaintzen zuen. Behin batean, basamortuan barrena eraman zuen artaldea eta Jainkoaren mendiraino, Horeberaino, iritsi zen. Han, Jaunaren aingerua agertu zitzaion sasi artean pizturiko sugarretan. Moises begira jarri zen: sasia, sutan egon arren, ez zen erretzen. Moisesek bere buruari ziotson: «Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola liteke sasia ez erretzea?»

Begiratzera zetorrela ikustean, Jaunak dei egin zion sasi artetik:

– Moises! Moises!

Hark erantzun:

– Hemen nauzu!

– Ez hurbildu – esan zion Jaunak –. Erantzi oinetakoak, zauden lekua lur santua baita. Ni zure aitaren Jainkoa naiz, Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoa.

Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldur baitzen.

Jaunak esan zion, gainera:

– Ongi ikusia dut nire herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zapaltzaileen zigorpean; bai, ohartu naiz haien oinazeaz. Egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz eta lurralde honetatik, esnea eta eztia darizkion lurralde zabal eta jori batera igoaraztera.

Baina Moisesek ihardetsi zion:

– Hara, ni israeldarregana joan eta «Zuen arbasoen Jainkoak bidali nau zuengana» esango diedanean, «Nola du izena?» galdetuko didate haiek. Zer erantzun behar diet orduan?

Jainkoak erantzun zion:

– Izango naizena naiz . Beraz, honela esango diezu israeldarrei: «Izango naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana.

Jainkoak Moisesi esan zion, gainera:

– Esan israeldarrei: Jaunak , zuen arbaso Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoak, zuengana bidali nau. Horixe izango da nire izena betiko; hala deituko naute belaunez belaun.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 102, 1-2. 3-4. 6-7. 8 y 11

R.

Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Bedeinka beza ene arimak Jauna,
ene barren osoak haren izen santua!

Bedeinka beza ene arimak Jauna,
ez bitza ahaztu haren mesedeak! **R.**

Erru guztiak barkatzen dizkit, gaitz guztiak sendatzen;
bizia Herio Leizetik ateratzen dit,
maitasun eta errukiz inguratzen nau; **R.**

Jaunak justizia egiten du,
zapalduen eskubideak defendatzen.

Bere egitasmoak adierazi zizkion Moisesi,
bere egintza handiak israeldarrei. **R.**

Bihozbera eta errukiorra da Jauna,
haserregaitza eta onginahiz betea.

Nola zerua lurraren gainean garai,
hala haren maitasuna begirune diotenentzat handi. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Basamortuko Moisesarekiko herriaren bizitza gure eskarmenturako idatzi zen.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 10,1-6. 10-12

Senideok, jakin behar duzue, gure arbasoak denak egon zirela hodeiaren babespean eta denek igaro zutela Itsaso Gorria. Denek hartu zuten bataioa hodeian eta itsasoan, Moisesekin bat egiteko. Denek jan zuten espirituzko janari bera, eta denek edan espirituzko edari bera; izan ere, beraiekin zihoan espirituzko harkaitzetik edaten zuten, eta harkaitz hori Kristoren irudi da. Hala ere, haietako gehienak ez ziren Jainkoaren gogoko izan, eta hilik gelditu ziren basamortuan.

Hau guztia guretzat ikasbide izateko gertatu zen, gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala.

Ez zaitezte marmarrean ari ere, haietako batzuk ari izan ziren bezala, gero aingeru suntsitzailearen esku hil zirelarik.

Haiei gertaturiko gauza horiek ikasbide dira guretzat, eta gure eskarmenturako idatzi zituzten, azkenak diren garai hauetan bizi garenok zentzarazteko. Beraz, zutik dagoela uste duenak egin beza kontu eror ez dadin.

Jaunak esana.

Ebanjelio aurretik txatala Mt 4,17

Bihozberri zaitezte, - dio Jaunak -
gainean baituzue Jainkoaren erregetza

EBANJELIOA

Bihozberritzen ez bazarete, berdin hilko zarete denok.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,1-9

Une hartan, batzuek Jesusengana joan eta zenbait galilearri gertatua kontatu zioten: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren abereen odolarekin beraien odola nahastuz. Jesusek erantzun zien: «Galilear horiek gainerakoak baino bekatariago zirela uste al duzue, heriotza hori izan zutelako? Ez horixe! Eta zuek ere, bihozberritzen ez bazarete, berdin hilko zarete denok.

«Eta Siloeko dorreak azpian harrapaturik hil ziren hemezortzi haiek, gainerako jerusalemdarrak baino bekatariago zirela uste al duzue? Ez horixe! Eta zuek ere, bihozberritzen ez bazarete, denok hilko zarete».

Gero, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek pikondo bat zuen bere mahastian aldatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, mahastizainari esan zion: “Begira, badira hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu.

Zertarako egongo da hor lurra alferrik jaten?” Baina mahastizainak erantzun zion: “Jauna, utz ezazu aurtengoz; bitartean, ondoa aitzurtu eta ongarria botako diot, ea aurrerakoan fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>